

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Errealitate Birtualaren Erakustaldia Giza Eskubideen 17. Zinemaldian

Bigarren urtez segidan, errealitate birtuala berriro dator Zinemaldira Errealitate Birtualaren eta Giza Eskubideen inguruko Erakustaldi honekin. Apirilaren 5etik 7ra ikusi ahal izango da Zinemaldiaren Informazio Bulegoan, Victoria Eugenia Antzokian (sarrera Okendo plazatik). Sarrera libre. Ordutegia: 11:00 – 14:00 / 16:00 – 20:00.

Erakustaldia, **Zacarías de Santiago Areizaga** komisario duena, mundu osoko **hamalau piezak** osatzen dute aurten.

Zinemaldian estreinaldi eksklusibo bat izango da, **Through Your Eyes** (2019), Amref Salud África-k ekoiztua (Nazioarteko Lankidetzako Princesa de Asturias Saria 2018) eta Walter Alabarce-ek zuzendua. Kenyan filmatua, pieza honek testigantza zuzena eskaintzen digu emakumeen mutilazio genitalari buruz. Horrez gain, nazioarteko hamar erakundek eta GKEk, giza eskubideen defentsan lanean dihardutenek, erakutsiko dituzte beren lanak erakustaldi honetan.

Errealitate birtuala eta esperientzia immertsiboak ikus-entzunezko ahalmen handiko baliabide bilakatu dira azken urteetan giza eskubideen arloan, eta instituzio eta GKE askok erabiltzen dituzte beren lanerako.

Aurten lan hauek ikusi ahal izango dituzte ikusleek:

Asignatura Empatía

Aitor Gutiérrez / Euskaraz eta gaztelaniaz / 6 min

Samsung-en proiektu aitzindari honek, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin batera sustatuak, errealitate birtuala erabiltzen du eskola-jazarpenaren aurka borrokatzeko eta nerabeak arazoaz eta bere ondorioez kontzientziatzeko.

Bloodless

Gina Kim / Mutua / 12 min

Veneziako Zinemaldian saritua, pieza honek Dongducheon-eko asentamendu militarra lekualdatzen gaitu, Hego Korean. Bertan, prostituta baten azkeneko ordui jarraituko diegu; 1992an soldadu amerikar batek bortizki hil zuen emakumea.

The Curse of Palm Oil

Viktorija Mickute, Drew Ambrose, Sarah Yeo / Malaysieraz, ingelesezko azpiztituluekin / 7 min

Hemen hasten da palmondo-olioarekin izandako arazoa, guztion ahotan izan dena. Contrast VR estudioak Malaysiako basoetara lekualdatuko gaitu, eta bertan ikusiko ditugu jaten ditugun elikagai ugaritan dagoen osagai hau modu masibo batean lortzearen ondorioak.

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

The Day the World Changed

Gabo Arora, Saschka Unseld / ICAN / Ingelesez / Interaktiboa

Tomorrow Never Knows estudioak, ICANekin batera (Arma Nuklearrak Abolitzeko Nazioarteko Kanpaina) errealitate birtualean aurkezten digu memorial hau. Pieza interaktibo honen asmoa da bonba atomikoen biktimak ohoratzea eta halako armek suntsitzeko duten ahalmenari buruzko hausnarketa bat gudan piztea.

La historia de Aisha

Ignacio Marín / Save the Children / Gaztelaniaz / 4 min

Save The Children-en pieza honetan Aishari jarraitzen diogu: 13 urteko neska mauritanar bat da eta lehortek baldintzatzen du bere bizitza. Bertan ikusiko dugu urrutiko putzuetan ur bila ibiltzea dela bere eguneroko bizitzaren ardatza.

Home After War

Gayatri Parameswaran, Felix Gaedtke / GICHHD / Ingelesez / Interaktiboa

NoWhere Media estudioak GICHDein batera (Mina Gabetze Humanitariorako Genevako Nazioarteko Zentroa) aurkezten digu esperientzia interaktibo hau, South By Southwest zinemaldian saritua. Lan honek protagonista egiten gaitu Fallujah-eko etxe batera bueltan, non lehen gure etxea zena tranpa hilkor bat dela ikusiko dugun.

La huida del lago Chad

Anna Surinyach, Amaia Esparza / Mugarik Gabeko Medikuak / Gaztelaniaz / 5 min

Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak Chad lakuaren inguruetara lekualdatuko gaitu. Kasu honetan, armada afrikarren eta talde armatuen arteko gatazka armatuak milioika pertsona etxe gabe utzi dituztela erakutsiko zaigu.

iANIMAL

Jose Valle / Igualdad Animal / Gaztelaniaz / 5, 6 eta 7 min

Igualdad Animal-ek abeltegietara eta hiltegiakara lekualdatzen gaitu. Hiru pieza dira: txerri baten, oilasko baten edo behi baten bizitza erakusten digute eta animaliek jasotzen duten tratuari buruz hausnartzea eragingo digute.

My Africa

David Allen / Conservation International / Ingelesez eta gaztelaniaz / 9 min

Lupita Nyong'o aktoreak kontatua, Conservation International-en pieza honek Kenyako elefanteen santutegi batera lekualdatzen gaitu. Bertan ikusiko ditugu komunitateak nola berreskuratzen dituen loturak, hango jendeari eta animaliei elkarrekin bizitzea ahalbidetu dietenak.

Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights
Tel. +34 943 481 975 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus

Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit
Tel. +34 943 481 157 | cinema_cinema@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Rainbow Warrior in Taiwan

Yves Chiu / Greenpeace / Muda / 2 min

Greenpeace-rekin murgilduko gara Penghu uharteetako uretan, Taiwanen. Han ziurtatuko dugu zein eragin duten itsasoko hondakin plastikoez bere itsas bizitza zoragarria babestu nahi duen leku horretan.

Sense of Home

Janus Heiberg / Cruz Roja / Ingelesez, gaztelaniaz eta frantsesez / 5 min

Eser zaitez banku batean eta entzun Gurutze Gorriaren eskutik errefuxiatu siriar batzuen testigantza. Lehen pertsonen kontatuko dizute beren esperientzia eta zer den esparru batean bizitzea.

Through My Eyes

Walter Alabarce / Amref Salud África / Ingelesez, gaztelaniazko azpiztituluekin / 7 min

Amref Salud África-ren pieza honek (Nazioarteko Lankidetzako Princesa de Asturias Saria 2018), La Frontera VRek eginak, estreinaldi eskusiboa izango du zinemaldian. Bertan bidaia bat egingo dugu Kenyatik, eta herri masai batean lehen pertsonen entzungo ditugu emakumeen mutilazio genitalari buruzko testigantzak.

The Umbrella Movement Four Years On

Cathy Chu, Hana Young / Amnesty International / Mutua ingelesezko testuekin / 3 min

Bazenekin mugimendu bat egon zela 15M bezalakoa Hong Kongen? Nazioarteko Amnistiaren pieza honek kontatzen digu bere aktibistetako batzuek bertan parte hartzeagatik nola aurre egiten dieten orain kartzela-zigor larriei.

You Are There: On The Road To Making Polio History

Peter Collis / UNICEF / Ingelesez eta gaztelaniaz / 5 min

Ewan McGregor-ek kontatzen digu Polioaren arazoari buruzko UNICEFen pieza hau, Kenyan. Bertan ezagutuko dugu Job, polioak erasandako azkenetako haurretako bat, baita Sabina ere, herrialdean arazoa errotik erazteko borrokan ari dena.